



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezequiel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2015eko azaroaren 11n, 18:30etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. ZENBAIT ESKARI.

Iruñako 5. Jabetza Erregistroko Ediktua irakurri du idazkariak, A.O.M. eta E.L. S.ek etxea eta hiri-lursaila inskribatzeari buruzkoa (4 poligonoko 122 eta 151 partzelak). Jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

3. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2015eko irailaren 17koa, M.C.E.ri lizentzia eman ziona, *Tornolako borda* erreteiltzeko teila zaharrekin.
- 2015eko irailaren 17koa, A. eta I.S.i lizentzia eman ziona, gas-olioaren depositua *Eguzkilore* etxeko kanpo aldean jartzeko.
- 2015eko irailaren 18koa, zeinak baimena eman zion M.E.ri, gazte batzuen izenean, kirol jarduera egiteko eskolako behe aldean, ludotekan, asteazkenetan.
- 2015eko irailaren 30ekoa, 2 poligonoko 292 partzelako borda (*Parazelaieta* parajea) etxeko ukuilua bezala erabiltzeko, I.G.ri emandako baimena aldatzea erabaki zuena.
- 2015eko urriaren 1ekoa, F.L.ri lizentzia eman ziona, *Orilla* etxeko fatxadak pintatzeko.
- 2015eko urriaren 6koa, *Herriko Ostatua* ixteko ordutegia luzatu zuena urriaren 10erako (“Euskararen Eguna”).
- 2015eko urriaren 6koa, *Sarokaiz* parajea oihan-aprobetxamendua ateratzeko, L.I.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2015eko urriaren 9koa, Nafarroako Gobernuak Mendiko Zerbitzuari baimena eman ziona, sasiak kentzeko lanak egiteko *Garaxingo borda* parajea —lusail komunala—.
- 2015eko urriaren 9koa, B.I.ri lizentzia eman ziona, *Zubitea* etxeko aurrekaldea pintatzeko.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- 2015eko urriaren 9koa, Txitxilu Guraso Elkarteari baimena eman ziona, eskolako beheko solairua erabiltzeko, ludoteka zerbitzua emateko bertan, urritik maiatza arte.
- 2015eko urriaren 15ekoa, R.E.i baimena eman ziona, 2 erlategi jartzeko *Burralde* parajea (2 poligonoko 148 partzela).
- 2015eko urriaren 19koa, S.A.i lizentzia eman ziona, *Migelkoneko bordako* teilatua konpontzeko (3 poligonoko 73 partzela).
- 2015eko urriaren 19koa, 2 poligonoko 146 partzelan eraikitako etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona P.S.i.
- 2015eko urriaren 23koa, *Joanamaría etxean* obrak egiteko lizentzia aldatzeko baimena eman ziona J.M.ri (leiho bat handitu eta beste bat berria irekitzeko).
- 2015eko urriaren 23koa, zeinak baimena eman zion G.M.ri, *Makillipurdi* parajea 1 poligonoko 3, 4 eta 5 partzelak ixteko pikete eta alanbrearekin.
- 2015eko urriaren 28koa, L.B.ri lizentzia eman ziona, 20 metro karratuko txabola eraikitzeko 4 poligonoko 342 partzelan (*Akarriain* parajea).
- 2015eko urriaren 30ekoa, P.H.ri lizentzia eman ziona, *Migelkonea etxeko* teilatua konpontzeko.
- 2015eko urriaren 30ekoa, A.S.i lizentzia eman ziona, *Serokoa baserriko* fatxadak pintatu eta ondoko garajeko teilatuan teila jartzeko.
- 2015eko urriaren 30ekoa, P.S.i lizentzia eman ziona, *Baztanea etxeko* fatxadak pintatzeko.
- 2015eko azaroaren 5ekoa, F.L.ri lizentzia eman ziona, *Martuzenea* etxeko sarrerako atea eta kontraleihoak aldatzeko.
- 2015eko azaroaren 5ekoa, M.J.ri lizentzia eman ziona, *Errandonea* ostatuan zenbait obra egiteko: taberna eta jangela bereizten duen pareta mugitu 2,50 metro.

4. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren ganean geratu da Udalbatza: 1950/2015 Ebazpenak, irailaren 30ekoa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko arauak ezartzen ditu, Gazteen Bermearen Sisteman inskribaturiko gazte langabeak lan munduan txertatzea errazteko asmoz eta 2 gazte kontratatzeko saiakera egingo du Zubietako Udalak; Udalaren web orria eta posta elektronikoa .EUS domeinura aldatu dira; Polizia Foralak emandako delituen mapa; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak — A.M.M., P.S., M.M. eta S.A.nak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen Esplotazioen Erregistroan izandako mugimendua — M.I.G.ren alta—; Txitxilu Guraso Elkartek ludotekarako egin duen aseguruaren agiria; Malerrekako Mankomunitateko Zabor Batzordeko agiria, hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2016ko tasekin (Batzar Orokorrean onartzeko daude).

2. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- Zabor Batzordeko bilera. Hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2016ko tasekin desadostasuna agertu zuen Zubietako ordezkariak.
- Gizarte Zerbitzuko Batzordea. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Egunaren inguruan zenbait ekintza prestatu dira.

3. Etxebizitza familiabakarra eraikitzeko lizentzia eman zitzaion F.S.E.ri 2005eko otsailaren 14ko Alkatetzaren Ebazpenean, A.C. arkitektoak egindako proiektuaren arabera. Proiektuko aurrekontuan sartuak daude lotura ur-hornidurako sare orokorrera eta ur-kontadorea (aurrekontuko 22. orrialdea). Ur-kontadorea jarri gabe dagoela ikusi da.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da: S. jaunari agindua ematea, ur-kontadorea jartzeko hilabete bateko epean. Ez badu agindutakoa betetzen, Udalak iturgina ekarriko du eta kontadorea jarri eta S. jaunak ordaindu beharko du kostua.

4. Goizetan zubian gertatzen den egoerari buruz hitz egin da: gurasoak eramaten dituzte haurrak autobus geltokira eta kotxe asko pilatzen dira inguru horretan, autobusari gelditzeko tokia kenduz eta arriskua sortuz. Bando bat bidali baino lehen, komenigarria ikusi da egoerari buruzko txosten bat eskatzea Nafarroako Foruzaingoari, segurtasun aldetik zerbait hobetzeko dagoen galdetuz.

5. Leire Bazterrikak Euskara Batzordean eztabaidatu ziren gaiak aipatu ditu: aurrekontua, .EUS domeinua, *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa (abenduarien 5ean), literatur solasaldia, *Kultur Ibilbidea*, *Malerreka Kantuz 2016*.

6. Alkateak aipatu du Elgorriagako Bainuetxearekin hitzarmen bat egin nahi dela, bisitariak ekarri ahal izateko Errotara bonu gisako agiri batekin.

5. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:40ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.